



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Aldundiak Bizkaiko zortzi industria eraikinetarako babesa eskatuko deutso Eusko Jaurlaritzari

Bilbon, 2014ko apirilaren 3an.

Batzar Nagusietako Kultura eta Euskera batzordeak, Bizkaiko geografian sakabanatuta dagozan hainbat industria aztarnetarako lege babesa eskatu dau. Bizkaiko Talde Popularrak (PP) aurkeztutako ekimenaren bitartez, Batzar Nagusiek eskaerea egingo deutesie Aldundiari, horrek, aldi berean, Eusko Jaurlaritzari eskaerea egin deion, Euskal Kultur Ondarearen Legeagaz bat etorritz, eraikin honeen “kontserbazinoa ondoen bermatuko dauen” babeseko lege neurria “aztertu eta onartu daian”: Orconerako karga gunea (Barakaldo), Riotinto Lehergaien Koloniak (Galdakao), Fábrica Española de Productos Químicos izenekoa (Leioa), La Navaleko 1 zenbakiko kai sikua (Sestao), Babcock & Wilcox (Sestao), Patalako zentral hidroelektrikoa (Berriz), Ormaza kontserba enpresaren eraikina (Bermeo) eta General Eléctrica Española (Trapagaran).

Batzarretako talde guztiak bat etorri dira, Eusko Jaurlaritzak eraikin horreek kontserbetako ahalegina egin behar dauela esatean, industriaren arloan “lagatako aztarnaren oroitzapena eta parte diralako”. Batzar Nagusien agindu hori jasoten daben arauz besteko proposamenak aho batez onartu dira, Riotinto Lehergaien Koloniak kontserbeteari jagokonean izan ezik, puntu horretan EH Bildu abstenidu egin da eta.

ZUGAZTIETAKO ERAIKIN BAT JAUSTEKO ARRISKUA

Batzorde berean, EH Bilduk aurkeztutako arauz besteko proposamena onartu da, Aldundiak jarrera aktiboa hartu daian, Trapagan dagoan Zugaztietako Madalena kaleko leko eraikinaren “arrisku egoerari behin betiko amaiera emoteko hartu beharreko neurriak hartu daizan”.

Batzar Nagusiek eskaerea egin deutesie Aldundiari, beharrezkoa bada, Kultur Ondasunari buruzko Euskal Legeak horretarako emoten dauen aukerea erabili daian, eta higiezinaren jaubeak, epe egoki batean, eraikinaren osotasuna gordetako eta herritarren segurtasuna bermetako aukerea emongo daben obrak egin daizan, “edo bestela Aldundia bera izan daiten obrak egingo dituana, jaubearen kontura”.

Onartutako ekimenak apustua egiten dau, baita, Aldundia Zugaztietako “Moltso Monumentalean” inplikautako erakunde guztiakaz alkartu daiten, neurri horreek guztiak martxan jarteko eta, beharrezkoa bada, eta jaubeak bere erantzukizuna betetan ez badau, haren kontra hartu beharreko neurriak agindu daizan.

TREN GELTOKIAK

Ganera, koalizino abertzalearen ekimenez, eskaerea egin da Foru Aldundiak Eusko Jaurlaritzara jo daian, Neguriko, Deustuko, Bilbo/Galtzadetako –gaur egungo Arkeologi Museoa– eta Derioko tren geltokiak ondasun kultural izendatu daizan. Arauz besteko proposamena ez da



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

onartu, EAJ-PNV taldearen kontrako botoagaz. Talde horrek ez dau proposamenaren aldeko jarrerarik erakutsi gura izan, bere eretziz geltoki horreetako bi –“Neguri eta Malloako Galtzadak”– babestuta dagozalako, eta besteen kasuan, Eusko Jaurlaritzak hasi beharreko espedienteak hasi ditualako “dagoaneko”. PSE-EE eta EH Bildu taldeek aldeko botoa emon dabe, eta PP abstenidu egin da, jeltzaleakaz bat etorri diralako eraikinak “ez dirala konparagarriak” esatean, ez dirala danak Batzarretako ekimen berean sartzeko modukoak.

GUGGENHEIM MUSEOA LONDRESEN

Azkenik, Josune Ariztondo Kultura diputatua, PP taldeak eskatutako agerraldiari erantzuteko joan da batzordera. PP-k, Boris Johnson Londresko alkateak, Guggenheim “markako” arte garaikide zentro bat bertan jarteko aukerari buruz “jaurtitakoari” eta horrek Bilboko museoan izan daikean eraginari buruzko azalpenak eskatu ditu.

Popularren eskaerea, zezeilaren 27ko “The Art Newspaper” aldizkari espezializatuan argitaratutako albistean oinarritzen da. Bertan, Londresko alkateak, Guggenheimegaz eta beste kultur erakunde batzuekaz berbetan dabilela esaten dau. Ariztondok adierazo dauenez, “New Yorkeko Guggenheim museoko komunikazio zuzendariak goitik behera ezeztu dau hori”.

Diputatuak, PP taldeari emondako erantzunean, Estatu Batuetako museoaren arduradun horrek esandako berba berak erabili ditu. “Solomon R. Guggenheim Foundation erakundeak ez dauka ezelango alkarrizketarik Londreseko erakunde edo agintariakaz Guggenheim museo bat egiteko aukeraren inguruan, eta aurretik be ez dau gai horri buruzko ezelango alkarrizketarik izan”, esan dau.

Halanda be, Ariztondok gogoratu dau aldean artean sinatutako akordioak dirala eta, New Yorkeko Guggenheim Bilbao Fundazioaren “aurretiko baimena” beharko dauela, fundazio amerikarrak Europan beste museo bat instalau gura izan ezkeru.

PP-ko Arturo Aldecoak gai horren ganean adi egoteko gonbidapena luzatu deutso Aldundiari, Londres “oso etsai arriskutsua” dalako Bilboko museoaren etorkizunerako, ekonomiaren eta gizartearen aldetik daukan potentzial handia dala eta. Bizkaiko interesentzat “zenbat eta kompetentzia gitxiago, hobe”, baina aurreratu dau, benetako interesa euki ezkeru, Londresek “ahalegin guztiak egingo dituala” akordio horreek ez betetako, Europan beste zentro batzuk eregiteko baimena emoteko orduan “giltza guk izan arren”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Petición al Gobierno vasco para que proteja ocho edificaciones industriales de Bizkaia

En Bilbao, a 3 de abril de 2014.

La comisión de Cultura y Euskera de las Juntas Generales ha pedido hoy protección legal para distintos vestigios industriales que se encuentran repartidos por la geografía de Bizkaia. A iniciativa del grupo Popular Vizcaíno (PP), el Parlamento del Territorio solicitará a la Diputación que inste, a su vez, al Gobierno Vasco a que “estudie y apruebe”, de acuerdo con la Ley del Patrimonio Cultural Vasco, la figura legal de protección que “mejor garantice la conservación” del Cargadero de la Orconera (Barakaldo), la Colonia de Explosivos Riotinto (Galdakao), la Fábrica Española de Productos Químicos (Leioa), el dique seco número 1 de La Naval (Sestao), la Babcock & Wilcox (Sestao), la central hidroeléctrica Patala (Berriz), el edificio de la empresa conservas Ormazá (Bermeo) y la General Eléctrica Española (Trapagaran).

Todos los grupos junteros han coincidido en señalar que el Ejecutivo vasco debe hacer lo posible por preservar estas edificaciones que son “recuerdo y parte de nuestra huella” industrial. Las proposiciones no de norma que recogen este encargo de las Juntas Generales han sido aprobadas por unanimidad, a excepción de la referida a la salvaguarda de las colonias de Explosivos Riotinto en donde EH Bildu se ha abstenido.

PELIGRO DE DERRUMBE DE UN EDIFICIO DE LA ARBOLEDA

En la misma comisión, se ha aprobado otra proposición no de norma, en este caso de EH Bildu, para que la Diputación adopte una actitud “activa en aras a tomar medidas para definitivamente poner fin a la situación de peligro” del edificio situado en el número 1 de la calle Magdalena de La Arboleda, en Trapagaran.

Si fuera necesario, la cámara vizcaína le pide a la institución foral a valerse de la opción que la Ley Vasca de Patrimonio Cultural posibilita al efecto, y que “obligue” al propietario del inmueble a realizar en un plazo adecuado las obras necesarias que permitan mantener la integridad de la edificación y garantizar la seguridad de la ciudadanía, "o de lo contrario sea la propia Diputación quien realice las obras por cuenta del propietario".

La iniciativa aprobada apuesta también por que la Diputación se reúna con todas las instituciones implicadas con el "Conjunto Monumental" de La Arboleda, con el fin de poner en marcha todas estas medidas y si se diera el caso, y la propiedad no cumpliera con su responsabilidad, determine las medidas a adoptar en su contra.

ESTACIONES DE TREN

Asimismo, a iniciativa de la coalición abertzale, se solicitaba que la Institución foral se dirigiera al Gobierno Vasco para que éste calificara como bien cultural las estaciones de tren de Neguri,



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Deusto, Bilbao/Calzadas -actual Museo Arqueológico- y Derio. La proposición no de norma ha sido rechazada por los votos contrarios del PNV. Esta formación se ha negado a apoyarla porque entiende que dos de estas paradas –“Neguri y Calzadas de Mallona”- están protegidas, y para las otras, el Gobierno vasco ha iniciado "ya" los respectivos expedientes. PSE-EE y EH Bildu han votado a favor, mientras el PP se ha abstenido por coincidir con los jeltzales en que los edificios “no son comparables” para incluirlos todos en la misma iniciativa parlamentaria.

MUSEO GUGGENHEIM EN LONDRES

Por último, la diputada foral de Cultura, Josune Ariztondo, acudía a la comisión para reponder a la petición de comparecencia solicitada por el PP que pedía explicaciones sobre el “globo sonda” lanzado por el alcalde de Londres, Boris Johnson, de cara a ubicar un centro de arte contemporáneo de la “marca” Guggenheim, y de cómo este hecho podía afectar al museo bilbaino.

La solicitud de los populares se fundamenta en una noticia publicada en la revista especializada “The Art Newspaper”, del 27 de febrero, en la cual el regidor londinense decía estar en conversaciones con el Guggenheim y con otras instituciones culturales, “hecho negado rotundamente por la directora de comunicación del Guggenheim de Nueva York”, según ha respondido Ariztondo.

La diputada ha utilizado, en su contestación al PP, las mismas palabras de esta responsable del museo americano. “La Solomon R. Guggenheim Foundation no está participando en ninguna conversación con ninguna organización o autoridad de Londres referente a la creación de un museo Guggenheim, ni ha entablado anteriormente ninguna conversación de este tipo”, dijo.

Aún así, Ariztondo ha recordado que según los acuerdos alcanzados entre las partes, Nueva York precisará del “consentimiento previo” de la Fundación Guggenheim Bilbao en caso de que la fundación americana quiera instalar otro museo en Europa.

Arturo Aldecoa, del PP, ha invitado a la Diputación a estar pendiente de este asunto, ya que Londres es un “enemigo muy peligroso” para el futuro del museo de Bilbao por su potencial económico y social. Para los intereses de Bizkaia, “cuanto menos competencia haya, mejor”, aunque ha augurado que, en el caso de que les interese, Londres hará “todo lo posible” por saltarse estos acuerdos, aunque "tengamos la llave" para permitir o no que se construyan otros centros en Europa.